



EBALUAZIO-ERRUBRIKA
PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



IRIZPIDEA	4-BIKAIN	3-OSO ONGI	2-NAHIKOA	1-ESKASA
Koherentzia (EUS 5.1 irizpidea)	Sarrera osoa eta antolatua da, eta eskatutako gai guztiak jasotzen ditu (kokapen geografikoa, biodibertsitatea, geologia). Antolatzaileen erabilera egokia eta egitura argia.	Sarrerak eskatutako gai guztiak hartzen ditu, eta antolatuta dago, baina xehetasun edo antolatzaile batzuk falta dira.	Sarrera laburra edo osatu gabea da, eta antolaketa nahasia da zati batzuetan.	Sarreran garrantzitsua den informazioa falta da edo desantolatuta dago.
Hizkuntza-zehaztasuna (EUS 5.2 irizpidea)	Testuak ez du ortografia- eta gramatika-akatsik. Hiztegia egokia eta askotarikoa da.	Testuak akats gutxi ditu eta hiztegia egokia da.	Hainbat akats ortografiko eta gramatikal daude. Hiztegi mugatua.	Akats ugariak ulermena zailtzen dute. Oinarrizko hiztegia.
Plangintza eta edizioa (EUS 5.1 irizpidea)	Azken testuak plangintza-, edizio- eta berrikuspen-lan nabarmena erakusten du. Zuzenketa guztiak aintzat hartu dira.	Planifikazio-zantzuak daude, baina ez dira beharrezko zuzenketa guztiak aplikatu.	Testuak berrikuspen gutxi du, zuzendu zitezkeen akatsak daude.	Ez da zirriborrorik aurkeztu edo berrikuspenik ez da egin.
Iturri fidagarrien hautaketa (EUS 6.1 irizpidea)	Erabilitako iturri guztiak fidagarriak dira eta testuan erabiltzea justifikatuta dago.	Iturri gehienak fidagarriak dira, nahiz eta baten bat zalantzarik izan daitekeen.	Iturri batzuk ez dira fidagarriak edo ez dago justifikatuta haien erabilera.	Iturrien hautaketa ez da egokia edo ez da ageri.
Jariakortasuna (EUS 3.1 irizpidea)	Narrazioa argia eta arina da, intonazio eta erritmo egokiekin. Erregistro formalaren erabilera eraginkorra da.	Narrazioa, oro har, argia da, erritmo edo intonazio arazo txikiekin. Erregistro egokia.	Narrazioak etenaldi luzeak ditu, edo erritmoa azkarregia da, edo ahoskera ez da oso argia.	Narrazioa ulertzea zaila da, erritmo, intonazio edo argitasun arazoak direla eta.
Proporzionaltasunaren kalkulua eta adierazpena (MAT 6.1 irizpidea)	Kalkuluak zehatzak dira, eta azalaren arteko konparazioa ondo azalduta eta testuinguruan kokatuta dago.	Kalkuluak zuzenak dira, baina azalpena ez da oso edo ez da oso argia.	Kalkuluetan akatsak daude, baina konparazioa ulargarria da.	Ez dira kalkuluak ageri edo erratuta daude, inolako konparazio koherenterik gabe.